**BEZEROAREKIKO HARREMANA**

Zer esanik ez, gure helburua dirua lortzea izateaz aparte, helburu sozialak izango ditugu. Azken helburu honen barne, institutuetan eta ospitaletan ekintzak antolatzea egongo da. Horrela, gazteenen konfiantza lortuko dugu baita hauek kontzientziatzea ere.

- Bezeroak gure proposamenari lotuta mantentzeko, jarduera garrantzitsuenetarikoa honako hau izango da: Hiru hilero, Zugaztieta parkean DBHko ikasleekin eta institutuko zuzendari zein irakasleekin (baita parte hartzeko prest dauden senideekin ere) zuhaitzak landatzea. Gero, gure enpresak egindako konpostontziekin lehendik sortu dugun biomasa ongarri gisa erabiliko dugu, landareen hazkuntza hobetzeko.



- Osasun zentroei dagokienez, ospitaleen teilatu batean lorategi bat eraikiko dugu. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak moldatuko du teilatu hori, hau da, hesiak etab. jarriko ditu istripurik ez gertatzeko. Orduan, zuhaitz eta barazkiok ospitale barruan dauden ume gaixoek landatuko dituzte guk eta ospitaleko lorezainek gidatuta. Ekintza hauen bidez, ospitaleko zuzendariek, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak eta batez ere, ume gaixoen familiek gure ekintzaren garrantzia ikusiko dute.

Bi ekintza horien bidez, gure bezeroak mantenduko ditugu. Halaber, gure produktua berritzeko konpromisoa hartuko dugu, merkatuko teknologia berriak erabiliz. Izan ere, beste enpresetatik gure erosleen bizitza errazteko nahia



bereizten gaitu.



Gure bezeroak integratu daitezen, ikastetxeetara hurreratuko gara ikasle eta bertako langileei ikastaroak emateko. Bertan, gure produktuak nola erabili behar diren azalduko dugu, ahalik eta erabilera eraginkorrena eman ahal izateko. Modu horretan, haiek bere kabuz era optimoan erabiliko dute gure produktuak eta emaitzak ezin hobeak izango dira.